

# atezainok euskaraz



EUSKARA ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE EUSKERA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

[www.ehu.es](http://www.ehu.es)



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Euskara Errektoreordetza**

Gobernu Eraikina

UPV/EHU

Sarriena z.g. 48940 Leioa



2002an, Euskal Herriko Unibertsitateak erabilera-taldeak jarri zituen abian, AZPko langileek euskaraz lan egiteko zituzten zailtasunak identifikatzeko eta konponbideak proposatzeko.

Euskaraz lan egin nahirik, Donostiako Erizaintza Eskolako atezainek saiakera berezia egin zuten 2003an eta 2004an. Horretarako, hainbat bilera egin zituzten Elhuyar Aholkularitzako teknikariek lagunduta. Horrela sortu zen lehenengo materiala, atezain guztientzat baliagarria izan zena, **ATEZAINOK EUSKARAZ** izenekoa.

Material hori erabiliz, 2005etik aurrera hainbat atezain aritu izan dira hiru campusetan, liburuxka horretako materialarekin trebatzen eta bide batez hornitu eta aberasten, eta horrela sortu da, aipaturiko atezain horien guztien laguntzaz, esku artean duzuen liburu hau.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu berri duen Euskararen Plan Gidarian, helburuetako bat jendaurreko lanpostuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatu dituzten langile gehiago egon daitezela da, eta horietako asko atezainak dira, beraiek baitira UPV/EHUrako datozen guztiei lehen harrera egiten dietenak.

Orain liburu gisa argitaratu den material honek lagungarri izan nahi du eguneroko lanean euskara erabiltzeko eta izango dituzuen zalantza asko argitzeko. Hori dela eta, liburuxka hau landu duten atezain guztiei nire eskerrak eman nahi dizkiet, Euskal Herriko Unibertsitatean euskararen erabilera bultzatzeko eta UPV/EHU benetako Unibertsitate elebiduna izan dadin pauso garrantzitsua eman dutelako.

Ludger Mees  
UPV/EHUko Euskara Errektoreordea





Eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau gauzatzen lagundu duten atezain guztiei, eta bereziki erabilera-taldeetan aritu direnei. Beraien ahaleginik eta laguntzarik gabe ezingo genuen "Atezainok euskaraz" hau gauzatu.

Felix Abad Salas	M <sup>a</sup> Jesus Martinez de San Vicente
Luis Miguel Atxa Jungitu	M <sup>a</sup> Pilar Melo Hernandez
Josu Jon Agirrezabala Petralanda	Beatriz Miyar Arrien
Begoña Alonso Crespo	Maite Molero Zarraga
Xabier Amezaga Otaola	Daniel Monreal Arroniz
Luis Fernando Anza Rey	Javier Otxoa Elejalde
Estibaliz Beitia Goikoetxea	Isabel Ocerin Beraza
Luis Berasategi Felix	Luis Miguel Ortega Hermana
Jon Coto Ugalde	Jose Felix Ortega Rueda
Delicia Del Corral Gobierno	Jose Antonio Oiarbide Elizondo
Maite Etxebarria Orroño	Luciano Patiño Sanchez
Carlos Esteban Gomez	M <sup>a</sup> Isabel Peña Pérez
Lauri Fernandez Regueiro	Iker Perez de Heredia Saez de Urturi
Consuelo Gainzarain Marquinez	Miguel Angel Pinedo Sobron
Ana M <sup>a</sup> Galdeano Larrañaga	M <sup>a</sup> Paz Piñeiro Ferreiro
Beatriz Garcia Etxebarria	Jose Javier Ramos Ahedo
Alberto Garcia Basañez	Maria Rekagorri Villar
M <sup>a</sup> Jose Garcia Vazquez	Maria Revilla Ruiperez
Jesus M <sup>a</sup> Gonzalez Lomillo	Belen Santano Parras
Javier Gorjon García	Pablo Tamayo Errazkin
Jose Ignacio Indakoetxea Juanbeltz	Andoni Triguero Triguero
M <sup>a</sup> Francisca Iriondo Castañares	Hermenegildo Ugarte Gondra
Inmaculada López Loredo	Jose Luis Unanue Orkoien
Merche Lopez Rodero	Iñaki Vispo Goya





## 1 Euskaraz hitz egin

1.1. Gomendio orokorrak .....	3
1.2. Harrera .....	5
1.2.1. Sarrera .....	5
1.2.2. Harrera aurrez aurre .....	5
1.2.3. Harrera telefonoz .....	7
1.3. Argibideak eman .....	10
1.3.1. Sarrera .....	10
1.3.2. Leku-nozioak .....	10
1.3.3. Denbora nozioak .....	10
1.3.4. Aditza .....	10
1.3.5. Zalantza arruntenak .....	11

## 2 Euskaraz idatzi

2.1. Gomendio orokorrak .....	15
2.2. Oharrak eta enkarguak .....	16
2.3. Errotuluak, karpetak, inprimakiak .....	18
2.4. Agenda .....	19
2.4.1. Hainbat aholku agenda euskaraz betetzeko .....	19
2.4.2. Agenda betetzeko esaldi-ereduak .....	23
2.5. Posta elektronikoa .....	25
2.5.1. Egitura .....	25
2.5.2. Hasierako agurra .....	26
2.5.3. Testua .....	26
2.5.4. Amaierako agurra .....	26
2.5.5. Izenpea .....	26
2.6. Giltzak .....	26
2.7. Kartelak .....	27
2.7.1. Hainbat aholku .....	27
2.7.2. Hainbat adibide .....	28

## 3 Hiztegia

3.1. Sarrera .....	35
3.2. Atezainon hitzak .....	35
3.3. Atezainon hitzak, gaika antolatuta .....	35
3.4. Atezainon hitzak, alfabetikoki antolatuta .....	40
3.5. Atezainon laburtzapenak .....	45

3.5.1. Siglak .....	45
3.5.2. Ikurrak .....	45
3.5.3. Laburdurak .....	45
3.5.4. Inizialak .....	45

## **4** Prozesuak

4.1. Sarrera .....	51
4.2. Hainbat aholku eta iradokizun .....	51
4.2.1. Titulua .....	51
4.2.2. Pausoak .....	51
4.2.3. Pertsona .....	51
4.2.4. Estiloa .....	51
4.2.5. Agintera .....	52
4.2.6. Denborazkoak .....	52
4.3. Adibidea: posta prestatzeko prozesua .....	53

## **5** Material lagungarria

5.1. Liburu batzuk .....	57
5.2. Interneten bidez .....	57
5.3. Hiztegiak .....	57
5.4. Kontsulta guneak .....	57



# Euskaraz hitz egin

Gomendio orokorrak

Harrera

Argibideak eman



## 1.1. Gomendio orokorrak

Atezainon jardunean edo egunerokoan, ahozkoak (bai hitz egiteak, bai entzuteak) garrantzi handia dauka: kanpotik datozenei harrera egiteko, argibideak emateko, galderei erantzuteko, telefonoa hartzeko...

Lan horiek euskaraz egiteko erraztasuna eta ohitura baduenik bada atezainen artean. Asko dira, hala ere, behar adinako gaitasuna izan arren, traba handiak aurkitzen dituztenak. Traba horietako asko kezka eta beldurrak izaten dira, inguruak sartu dizkigunak edota guk geuk geure buruei ezarritakoak.

EHUko atezainek euskaraz jarduteko antolatutako ikastaroetan, kezka horietako asko azaldu izan dituzte atezainek, eta beraiek bilatu dizkiete askotan irtenbideak ere, ikuspegia aldatuta. Frogatu dute laneko ahozko jardunean euskaraz ere aritzea ez dela hain zaila, behar bezala entrenatuz gero eta pixkanaka-pixkanaka ohiturak aldatuz gero.

Hona hemen, atezainek saioetan elkarrekin landutako hainbat zailtasun, irtenbide edo ikuspegi-aldaketa eta gomendio, trabak gainditu eta euskaraz hitz egiteko:

<b>TRABA, ZAILTASUNA:</b> <b>Ez dakit euskaraz badakien</b>	Ez dakit informazio eske hurbildu zaidanak euskaraz badakien. Ez dakit lankide berriak euskaraz badakien, ezetz uste dut. Badaezpada gaztelaniaz egingo diet.
<b>IRTENBIDEA,</b> <b>BESTE IKUSPEGI BAT</b>	Hurbiltzen zaizkigunetatik askok dakite euskaraz. Ez dakite guk badakigun, ordea, eta gaztelaniaz hitz egiten digute badaezpada.
<b>GOMENDIOA</b>	Lehen hitza euskaraz egingo diot hurbiltzen den edonori. Euskaraz baldin badaki, euskaraz egingo dit eta ez baldin badaki, gaztelaniaz egingo dugu, biok dakigu eta.

<b>TRABA, ZAILTASUNA:</b> <b>Harreman-sarea eta segurtasuna falta dut</b>	Euskara ikasten eta lantzen denbora asko pasa dut, ahalegin handia egin dut. Ez dut norekin hitz egin, eta herdoiltzen ari zait. Ez dut erabiltzen.
<b>IRTENBIDEA,</b> <b>BESTE IKUSPEGI BAT</b>	Harrera oso leku ona da herdoila kentzeko. Kanpotik datorrenarekiko harremanean ez da asko hitz egin behar, ez da sakondu behar, ez da diskurtso konplexurik antolatu behar. Lankideen artean ere izango da euskaldunen bat.
<b>GOMENDIOA</b>	Harrerak ematen digun aukera aprobe txatu. Lehenengo egunetan arraro samarra iruditzen da, baina gero ez hainbeste. Asko errepikatzen diren gaietarako esaldiak eta hiztegia prestatu eta landu, segurtasuna ematen baitu horrek. Garrantzitsua da gustuko formulak bilatzea eta eroso sentitzea.

<b>TRABA, ZAILTASUNA:</b> <b>Aurreiritziak</b>	Zer pentsatuko ote dute nitaz euskaraz hitz egiten badut? Jendeak euskara lotzen du Hizkuntza Eskakizunekin, politikarekin, tentela/argia izatearekin, modernoa/zaharkitua izatearekin, lana lortze/ez lortzearekin... auskalo zenbat gauzarekin!
<b>IRTENBIDEA,</b> <b>BESTE IKUSPEGI BAT</b>	Aurreiritziak asko dira eta denok dauzkagu. Besteak zer pentsatuko ote duen inoiz ez dugu jakingo. Denekin asmatzea ere ezinezkoa da.
<b>GOMENDIOA</b>	Baloratu ikasten pasa duzun denbora eta egindako ahalegina. Hor ere aurkitu izango dituzu zailtasunak eta hala ere aurrera egin duzu. Zure lana gutxienez bi hizkuntzatan egiteko gai zara, eta hori ez da egun batean lortzen. Orain ere berdin, zailtasuna zein den ikusi, irtenbideak jarri eta aurrera egin.
<b>TRABA, ZAILTASUNA:</b> <b>Euskalkiak eta estandarra</b>	Nire euskalkia ez du inork ulertuko, askotan entzun izan dut oso itxia hitz egiten dudala. Nik euskaltegian ikasi nuen. Euskara batua bakarrik dakit, eta batzuk esaten didate oso artifiziala dela. Hemen etortzen diren euskaldun askok bere herriko edo eskualdeko hizkera erabiltzen dute eta ez diet ulertzen. Orduan, berehala gaztelaniara pasatzen gara.
<b>IRTENBIDEA,</b> <b>BESTE IKUSPEGI BAT</b>	Beste hizkuntzetan ere badaude eskualdeetako eta herrialdeetako hizkerak. Gaztelaniaz edo frantsesez ere gertatzen da beste nonbaitekoari ongi ez ulertzea, baina ez gara horregatik beste hizkuntza batera pasatzen, ingelesera-edo.
<b>GOMENDIOA</b>	Poliki hitz egin, mantsoago esateko eskatu, ulertu ez duzun hitz horrek zer esan nahi duen galdetu... Gozatu lekuetako hizkeren aberastasuna eta jolastu desberdintasunak ematen dituen aukerekin.

## 1.2. Harrera

### 1.2.1. Sarrera

Askotan atezainoi dagokigu harrera egitea kanpotarrari, bai aurrez aurre, baita telefonoz ere. Harrera hori nola egiten den garrantzitsua da, batez ere kanpora begira ematen dugun irudiarengatik eta harrera horrek aurrera begirako harremana bidera dezakeelako. Izan ere, harrera euskaraz eginez gero, euskaraz jarraitzeko bidea zabalduko diogu solaskideari, eta seguru asko eskertuko digu.

### 1.2.2. Harrera aurrez aurre

#### 1 Hainbat gomendio

- Harrerak **ekintza aktiboa** izan behar du. Ez egon zain, datorrena noiz hasiko; eman ongi etorria, harrera egin behar diozula adierazi.
- Garrantzitsua da **lehen hitzak euskaraz** egitea: euskaldunari atea irekiko diogu nahi badu euskaraz jarrai dezan.
- Datorrenarentzat **euskararen zuzentasuna ez da garrantzitsuena**. Zerbait jakin nahi du, zerbait galdetuko du, eta benetan axola zaiona da informazio egokia eta zuzena, eta tratu ona jasotzea.
- Leihatilara joan dena zerbait jakitera, eskatzera, esatera... joan da. **Utzi azaltzen eta hitz egiten**, aurreiritziak baztertu eta **entzun**.
- Saiatu **euskara hurbila** erabiltzen, ahal baduzu egokitu hizkera solaskideari, hizkera naturala eta ulertteraza erabili. Ez diogu berdin hitz egiten ezagunari edo ezezagunari, ikasleari edo irakasleari, gazteari edo edadetuari. Adibidez, solaskidearen euskalkia jakinez gero, hitz egin.
- Harrera egitean **ez erabili hitanorik**, solaskidea hasi ezean, behintzat.
- Solaskidearengandik urrun edo eserita egonez gero, **zutitu eta hurbildu**. Horrek erraztu egiten du komunikazioa eta solaskideak badaki berarekin ari zarela.
- **Irribarreak** harremanak asko gozaten eta errazten ditu.
- **Pazientzia izan**. Guretzat jakina eta erraza denak ez dauka zertan berdin izan guztientzat.

- Atezaindegian euskaraz badakizuela adierazteko, **kartel bat** erabil daiteke, solaskideak jakin dezan euskaraz hitz egin dezakeela. Hainbat esaldi erabilgarri daude. Hona hemen horietako batzuk:

*Euskaraz badakigu*  
*Nirekin euskaraz, nahi baduzu*  
*Gura badozu, berba egin euskaraz*  
*Saiatuko gara euskaraz?*  
*Hemen euskaraz egiten dugu*  
*Unibertsitatean euskaraz*  
*Se habla castellano*  
*Euskaraz bezala, gaztelaniaz ere badakigu*  
*Gaztelaniaz ere hitz egiten dugu*  
*Euskaraz zergatik ez?*  
*Hemen euskaraz hitz egiten dugu*  
*Euskaraz bizi gara*  
*Nirekin euskaraz*  
*Euskara ikasten ari naiz*  
...

Esaldi horiek irudi edo kolore erakargarriekin lagunduz gero, gainera, askoz ere hobeto.



## 2 Aurrez aurreko harrerarako zenbait esaldi erabilgarri

### - Agurrak egiteko

#### Lehen agurra

- Kaixo
- Egun on (goizean)
- Eguerdia on (eguerdian)
- Arratsalde on (arratsaldean)

#### Lehen agurrari erantzuteko

- Berdin
- Baita zuri ere
- Bai, egun on (edo dagokiona)

#### Amaierako agurrak

- Nahi duzun arte!
- Agur, ba!
- Ondo da!
- Ondo segi!
- Hurrengo arte!



## - Galdetzeko

- Zer nahi duzu?
- Zer behar duzu?
- Besterik nahi (al) duzu?
- Beste ezer nahi (al) duzu?
- Laguntzarik behar (duzu)?
- Zer nahi/gura zenuke?
- Zer dugu?
- Bai, esadazu

### 1.2.3. Harrera telefonoz

#### 1 Hainbat gomendio

- Telefono-deia hartzean, **erantzun euskaraz**: euskaldunari euskaraz jarraitzeko aukera emango diogu
- Solaskidea ezagutu eta konfiantza izan ezean, **ez erabili hitanorik**
- **Irribarretsu** baldin bagaude, **solaskideak ere igarriko du**
- **Hitz garrantzitsuak azpimarratu** edo errepikatu
- **Utzi hitz egiten** eta galderak egiten solaskideari
- **Aldatu intonazioa eta erritmoa**, asko hitz egin behar baldin baduzu
- Telefonoz ez da ikusten keinurik; horregatik, aurrez aurre baino **geldoago hitz egin**
- Telefono-zenbakirik eman behar baldin badugu, zenbakiak banan-banan ematea komeni da

#### HOBETZEKOA HOBETO

943 55 85 37 bederatziehun eta berrogeita hiru berrogeita hamabost laurogeita bost hogeita hamazazpi

**943 55 85 37 bederatzi-lau-hiru bost-bost zortzi-bost hiru-zazpi**

#### 2 Hasierako agurra

- Telefonoa hartzean, lehenengo esan solaskideari nora deitu duen, eta ondoren egin kortesiazko agurra: "egun on", "eguerdi on", "arratsalde on", "(bai)esan?"... Kontuan izan batzuetan fakultatearen izena bakarrik esanda ez dela identifikatzen harrerako hizkuntza (adibidez, "psikologia", "kimika"...). Horregatik, garrantzitsua da kortesiazko agurra euskaraz egitea.

*Zuzenbide Fakultatea, egun on!  
Kalitate Katedra, bai, esan?*

- Euskaraz agurtzean, zaindu azentua (adibidez, “psikología” eta “psikología” ez da gauza bera, bata gaztelania da eta bestea euskara).
- Ahoskera ere zaindu egin behar da (adibidez, “farmacia” eta “farmazia” ez dira berdin ahoskatzen).
- Hasierako agurrerako protokolo bat prestatuta edukitzeak asko laguntzen du, erabaki egiten baitugu zein izango den formarik egokiena eta guretzako erosoena (fakultatearen edo eskolaren izena oso luzea denean nola laburtu, euskarazko forma ofiziala zein den jakin, eroso eta natural egiten zaizkigun formulak zein diren...).

Batzuetan, komeni da telefonoa nork hartzen duen esatea:

*Leire Gonzalez naiz. Egun on!*

### 3 Elkarrizketa

#### Zain egoteko eskatzeko

---

- Itxaron pixka bat, mesedez
- Zaude pixka batean
- Orain beste linea batetik/telefonoz hitz egiten ari da. Zain egon nahi (al) duzu?

#### Deia beste norbaiti pasatzeko

---

- Oraintxe jarriko zaitut
- Berehalaxe pasatuko dizut deia

#### Norbait ez dagoela esateko (eta enkargua hartzeko)

---

- Une honetan ez dago. Enkargurik ematea nahi (al) duzu?
- Orain kanpoan da. Mezuren bat-edo utzi nahi (al) diozu?
- Sentitzen dut, baina une honetan ez dago. Zerbait esatea nahi (al) duzu?

### Amaiera

- Eskerrik asko deitzeagatik eta hurrengo arte

Deitu duenak eskerrak emanez gero, hainbat erantzun ditugu aukeran:

- Ez horregatik
- Ez dago zergatik
- Ez da ezer ere
- Baita zuri ere
- Eskerrak zuri

#### 4 Esan behar ez direnak

Batzuetan, ez da komeni honela erantzutea, nahiz eta egia izan:

- Komunean dago
- Bakar-bakarrik nago
- Ez dago inor ere bulegoan
- Kafea hartzera joan da duela 2 ordu

#### 5 Ohiko akatsak

Akatsik arruntena gaztelaniazko egituren kalko okerrak egitea izaten da. Besteak beste, honako hauek egin ohi ditugu:

- **Aditza:** ohiturazkoa erabiltzea etorkizuneko behar duen lekuan

##### HOBETZEKOA HOBETO

<i>Utzi niri enkargua eta nik esaten diot... Oraintxe pasatzen dizut deia</i>	<i>Utzi niri enkargua eta nik esango diot Oraintxe pasatuko dizut deia</i>
---	--

- Norbait bileraren batean dagoela esatean...

##### HOBETZEKOA HOBETO

<i>Bilduta dago*</i>	<i>Bilera batean dago Bilduta daude / Bilera batean daude</i>
----------------------	---

- Norbaitez galdetzean

##### HOBETZEKOA HOBETO

<i>Dago Mikel?*</i>	<i>Hor al da Mikel? Mikel hor al da?</i>
---------------------	--

## 1.3. Argibideak eman

### 1.3.1. Sarrera

Sarritan, kanpotik datorrenarentzat atezaindegia izaten da eraikinean ikusten edo aurkitzen duen lehen lekua, eta hara jotzen du informazio eske edo galdetzerara. Atezainok argibide asko eman behar izaten ditugu bideratzeko, eta lan horietan garrantzi berezia daukate **leku-nozioek**, **denbora-nozioek** eta **aginterak**.

### 1.3.2. Leku-nozioak

Sarritan galdetzen digute non dagoen fakultate bat, edo zerbitzu bat, edo dena delakoa. Horrelakoetan, azalpenak edo argibideak ematean, espazioan orientatzekoak erabili beharko ditugu: ezker-eskuin, goi-behe, gain-azpi, aurre-atze, pare, erdi, hasiera/bukaera...

Leku-nozio horiek erabiltzeko orduan, garrantzi berezia daukate deklinabide-kasu hauek: nondik, nora, non eta noraino.

Atezaindegian aritu behar duenarentzat ona izaten da, beraz, leku edo espazio-nozioen inguruko zalantzak uxatzea eta ongi ezagutzea, eta nahi bada, aberasten eta janzten joatea.

Era berean, asko laguntzen du, fakultate, eskola edo zerbitzu horretako plano bat izateak eta argi edukitzea leku bakoitzari nola esaten zaion gaztelaniaz eta euskaraz. Horrek segurtasun handia ematen du.

### 1.3.3. Denbora-nozioak

Norbait bideratzeko, batzuetan denbora nozioak erabili beharko ditugu, baita ordinalak ere: lehenengo, ondoren, aurretik, -takoan... Laguntzen du nozio horien erabilera-eremuak ongi ezagutzeak, hau da, jakiteak zer esan nahi duen bakoitzak eta nola erabiltzen den.

### 1.3.4. Aditza

Eskatzaileari argibideak ematean edo bideratzean, aholkuak edo iradokizunak emateko, normalean agintera erabiliko dugu. Euskaraz agintera hiru erataraz adieraz daiteke:

Aditzoinarekin edo partizipioarekin	<i>Joan eskuinaldeko atera</i>
Adizki perifrastikoekin	<i>Joan zaitez eskuinaldeko atera</i>
Adizki trinkoekin	<i>Zoaz eskuinaldeko atera</i>

Aditzik erabiliak, berriz, hauek izango dira: joan, hartu, igo, jaitsi, iragan, sartu, pasatu...



### 1.3.5. Zalantza arruntenak

Argibideak emateko gaiaren inguruan, zenbait kontsulta eta zalantza agertu izan dituzte atezainek ikastaroetan. Batzuk orokorrak dira, edonorentzat balio dutenak, eta beste batzuk oso partikularrak, lanpostu bakoitzari lotutakoak (gela bati nola deitzen zaion fakultate batean, adibidez).

Hona hemen zalantza arruntenak:

KONTSULTA	ERANTZUNA
<b>"Ederlandik Uribesalgora" ala "Ederlanetik Uribesalgora"</b>	Biak dira zuzenak, bai "Ederlanetik", bai "Ederlandik".
<b>"Hemen bertan" eta "Han bertan", ondo daude?</b>	"Bertan" eta "berton", biak daude ondo. "Bertan" leku-adberbio indartua da; "Berton", berriz, aldaera bat da, zenbait euskalkitan (bizkaieraz) hurbiltasuna adierazteko erabiltzen dena.
<b>"Enfrente" adierazteko "parean" eta "ondoan" hitzak erabiltzea ondo dago?</b>	Gaztelaniazko "enfrente" hori adierazteko, hitz egokia da "parean". Baita beste hauek ere: aurrean, aurrealdean, aurrez aurre... "Ondoan" hitzak, berriz, hurbiltasuna adierazten du, baina ez nahitaez aurrez aurre dagoela (ondoan egon daiteke eskuinaldean, ezker aldean...).
<b>Nola esan behar da euskaraz, "al fondo del pasillo"?</b>	"Fondo" horrek, adiera bat baino gehiago dauka, baina esanahiari begiratuta adierazi nahi du amaiera, bukaera, burua. Beraz, honela itzuliko genuke: "Pasilloaren amaieran".
<b>Nola esan behar da euskaraz "hall"?</b>	"Hall": hiztegian "atondo" jartzen du. Horrez gain, asko erabiltzen da "sarrera".
<b>"Ezkerrera" ala "Ezkerretara"? "Ezkerretako gelan" ala "Ezkerreko gelan"?</b>	"Nora" kasuari dagokionez, biak erabil ditzakezu, "ezkerrera" edo "ezkerretara", bata zein bestea. "Nongo" kasuari dagokionez, "ezkerreko" erabiltzen da: ezkerreko gelan sartu, ezkerreko atea jo...
<b>"Hitzaldia eta gero" ez omen dago ongi</b>	"Hitzaldia bukatu eta gero" beharko luke. "Zerbait egin eta gero" izaten da, "...eta gero" horrek aditza behar du aurretik.
<b>Ezin ditut ongi bereizi "gelan sartzerako/sartzerakoan/sartzean/sartutakoan"</b>	"Gelan sartzerako": gelan sartu aurretik, sartu baino lehen "Gelan sartzerakoan": gelan sartzerazkoan, sartzerazkoan, sartzerazkoan "Gelan sartzean": sartzen ari zarenean, edo bestela, sartu ondoren berehala, sartu eta segituan "Gelan sartutakoan": gelan sartu ondoren, gelan sartu eta gero, gelan sartzen zarenean...

# oharrak



# 2

## Euskaraz idatzi

Gomendio orokorrak  
Oharrak eta enkarguak  
Errotuluak, karpetak, inprimakiak  
Agenda  
Posta elektronikoa  
Kartelak  
Giltzak





## 2.1. Gomendio orokorrak

- **Idazten hasi aurretik, pentsatu** idatzi behar duzunaz: zertarako den (zein helbururekin), norentzat den (jasotzailea), komunikazio-egoera zein den (paretan jartzeko, postaz bidaltzeko, mahai gainean uzteko...), nola idatziko duzun (eskuz, ordenagailuz...)...
- **Antolatu informazioa**, erabaki zer eta nola adieraziko duzun, zein ordenatan eta nola antolatuko duzun. Jarri irakurlearen lekuan (zer interesatzen zaio? Ulertuko al du?).
- Zuzentasuna garrantzitsua da, baina **kontuan hartu behar dira bestelako faktoreak** ere: jatortasuna, egokitasuna, ulergarritasuna, erakargarritasuna...
- Erabili **zuzentasuna bermatzeko baliabideak**. Ordenagailuz idazten badugu, hor izango dugu zuzentzaile ortografikoa; eskuz ari bagara, izango dugu eskura hiztegiren bat.
- Beti **ez dago zertan hutsetik abiatu**. Askotan oso antzeko idatziak egin beharko ditugu eta lehendik egindakoak erabil ditzakegu. Behin eredu on bat edukiz gero, hurrengorako aprobeitza dezakegu.
- **Idazki-eredu asko daukagu aukeran** eta eskura, erabilgarri, bai Interneten (AZPidazki-n, agiriak.net-en...), baita liburuetan ere ("Idatziak"...).
- Idatziak formalak baldin badira, **hainbat esaldi-eredu** erabiltzen dira, egitura jakin batzuekin: zerbait jaso dugula adierazteko ("ohar honen bidez (zer) jaso dugula adierazi nahi dizut"), zerbait bidaltzen dela adierazteko ("Honekin batera doakizu..."), zorionak emateko ("Gure zorionik beroena adierazi nahi dizugu...")...
- **Idatzi ondoren, irakurri idatzia**. Betetzen al du asmoa? Jarri berriz ere irakurlearen lekuan: behar bezala ulertuko du? Lehen irakurraldian ongi ulertzen da?
- Horiez gain, seguru asko izango duzu inguruan **idatzietan lagunduko dizun norbait**, idazten edota idatzi duzuna zuzentzen lagunduko dizuna.

## 2.2. Oharrak eta enkarguak

Lanean askotan idazten dizkiegu ohar laburrak lankideei: norbaitek deitu diolako, enkargu bat emateko, mahaitik zerbait hartu diogula jakinarazteko... Oharrak euskaraz idaztea ez da zaila, eta horretarako aholku batzuk emango dizkizuegu.

Oharrak izaten dira **argiak, laburrak, zuzenak eta xumeak**, batere apaindurarik gabeak, eta gehienetan eskuz idatziak, gainera.

Beste idatzi batzuetan ez bezala, **ahozko erregistrotik gertu egon daitezke** eta zilegi dira lizentzia batzuk, idatzi formaletan erabiltzen ez direnak; adibidez, "Zer moduz?" idatzi beharrean, "Zemuz?" jartzea. Horrek ez du esan nahi, ordea, zuzentasuna baztertu behar denik, jakina.

Normalean, oharrek honelako **egitura** izaten dute:

### 1 Data eta ordua

Agian ez da beharrezkoa izango, baina gerta daiteke oharra jaso behar duenak handik ordu edo egun batzuetara irakurtzea. Horregatik, batzuetan komeni da eguna eta ordua jartzea oharrean, era laburtuan: 2007-09-14, 11:10...

### 2 Norentzat

Oharrean, komeni da adieraztea idatzia norentzat den, batez ere lankide askok egiten badute lan inguruan; izan ere, gerta daiteke oharra lurrera erortzea, adibidez.

Normalean, izena eta bi puntu jartzen dira hasieran: "Joseba:", "Aitziber:"...; halaber, badago "norentzat" deklinabide-kasua erabiltzea: "Josebarentzat", "Aitziberrentzat"... Izenburu gisa ere jar daiteke.

### 3 Idatzia

Normalean esaldi bakarra edo pare bat nahikoa izaten da oharra edo enkargua adierazteko.

Aditzik erabilienak hauek izaten dira: esan, deitu, galdetu, erantzun, adierazi... "Deitu" aditzarekin, nor-nork eta nor-nori-nork erabil daitezke aditz laguntzailean: "deitu dizu" eta "deitu zaitu".

Idatzian zer jartzen dugun, kontuan izan agian beharrezkoa izan daitekeela amaieran zerbait gehitzea: -t(z)eko, -(e)la, -(e)n... Hona hemen adibide batzuk:

Emazteak deitu dizu eta <b>esan du deitzeko</b>
Xabierrek <b>esan dit</b> gaur berandu etorriko <b>dela</b>
Oihanak galdetu dit <b>ea</b> bihar hemen izango <b>zaren</b> .
<b>Esan diot</b> ez neki <b>ela</b> , baina enkargua emango nizula
Anak deitu du. Jakin nahi zuen <b>ea</b> jaso duzun bere mezua. <b>Esan du</b> mesedez konfirmat <b>zeko</b>

#### 4 Agurra

Ez da beharrezkoa, baina jarriz gero, seguru asko laburra izango da: "agur", "laster arte"...

#### 5 Sinadura

Batzuetan, komeni izaten da oharra nork idatzi duen adieraztea, jasotzaileak jakiteko eta argibide gehiago jakin nahi izanez gero. Horregatik, amaieran izena jarri edo sinatu.

Hona hemen bi ohar:

2007-09-14 10:15
Leire:
Itziarrek deitu dizu, agiri bati buruz hitz egiteko. Esan du ahal duzunean deitzeko, edo bestela berriz ere deituko dizula.
Gero arte!
Amaia

2007-05-11 13:15
<b><u>Xabier</u></b>
Zurekin hitz egin nahi nuen, baina ez zaude. Mesedez, bueltatzen zarenean deitu. Nire lantokian egongo naiz.
Adio!
Joseba

## 2.3. Errotuluak, karpetak, inprimakiak

Lanlekuko dokumentu sinpleenez arituko gara atal honetan. Idazten lan handirik ez dutenak izaten dira, adibidez, errotuluak, lekuak eta gauzak non diren adierazteko erabiltzen diren orriak, karpeten eta apalen edukiak azaltzeko etiketak, izenburu sinpleak dituzten inprimaki edo betetzeko dokumentuak...

Dokumentu hauek euskaraz sortzeko lana ez da oso zaila. Ez du eskatzen esaldi luzeak egiterik edo testu garatu eta konplexurik. Zalantza izanez gero hiztegian begiratu eta gehienetan erraz konpontzen dela ematen du. Badira, hala ere, zaindu beharreko zenbait kontu.

① Askotan, gaztelaniatik abiatzen gara era honetako testuak prestatzeko. Hori dela eta, arriskua daukagu, euskarazko hitzak jarri bai, baina gaztelaniazko egituraren kalkoa egiteko. Zaindu errotuluetan-eta jarri dugun izena forma mugatuan egon dadin.

HOBETZEKO	HOBETO
Biltegi	<b>Biltegia</b>
Areto Nagusi	<b>Areto Nagusia</b>

② Artxiboetako etiketetan, karpeten bizkarretan... leku gutxi izaten da. Beraz, hitz gutxitan azaldu behar da azaldu beharrekoa. Benetan behar dugun informazioa emango diguten hitzak aukeratu behar dira. Baztertu alferrikako hitzak.

HOBETZEKO	HOBETO
2007an egindako erosketa guztiak	<b>2007ko erosketak Erosketak (2007)</b>
Diruaren sarrerak eta irteerak	<b>Sarrerak eta irteerak Sarrera-irteerak</b>

③ Leku gutxi izateak batzuetan laburtzapenak egitea eskatzen digu. Ez laburtu hitzak edozein eratar. Garrantzitsua da laburtzapenaren azpian zer dagoen identifikatzea

HOBETZEKO	HOBETO
Informati. Gela (luzeegi)	<b>Infor. Gela</b>
Ad. (laburregi)	<b>Adm. edo Admin.</b>

4 Bi hizkuntzatan jarri behar dugunean esaldia, euskarari emango diogu lehentasuna. Nola egiten da hori?

- Testua ezker-eskuin antolatuz gero, ezkerrekoan jarrita
- Testua goitik behera antolatuz gero, goian jarrita
- Letra-tamainarekin edo kolorearekin jokatzuz, nabarmenago eginda

**Erosketak / Compras**

**Erosketak  
Compras**

5 Artxiboetan, urtea askotan jartzen da. Gogoratu urteetan, milakoek ez dutela punturik. Horrez gain, urteari “garren” eransten badiogu (puntu bidez adierazia), atzetik “urtea” jartzea eskatzen digu.

*2006-2007*

*2007. urtea*

## 2.4. Agenda

Gure eguneroko lanean gertatzen diren guztiak apuntatzen ditugu agendan: zein etorri den bisitan, igeltseroa etorri dela lurra konpontzera, nork eraman duen eskuko ordenagailua etxera, teilatuan itogina dagoela...

Beraz, tresna garrantzitsua da gure lanean, egunero betetzen dugulako, eta garrantzitsua da, halaber, euskaraz betetzea.

Garrantzitsua da, era berean, edozein dela ere hizkuntza, irakurri behar duenak argi ulertzea.

Horretarako, hona hemen zenbait aholku. Ez dira arauak, ez dira derrigor bete beharrekoak, testu mota hau ulergarriago eta argiago egiten laguntzen diguten gomendioak baizik.

### 2.4.1. Hainbat aholku agenda euskaraz betetzeko

#### 1 Ez itsutu zuzentasunarekin

Agenda ez da jendaurrerako testu bat, ez da argitaratzeko testua ere, asko jota lankide batek edo bik irakurtzekoa baizik. Erraz eta ongi ulertzeak garrantzi handiagoa du gramatika–arau guztiak hitzez hitz betetzeak baino.

Tarteka “lizentziaren bat” hartzea hobea da, arau bat nola den seguru ez jakiteagatik dena gaztelaniaz egitea baino.

**HOBETZEKOA BAINA ONARTZEKOA**

Probedoreen zerrenda guztiak berritu egin dodaz

Iturginari aztu egin zaio faktura uztea edo ez du euki astirik

**2 Ordena: garrantzitsuena lehenengo eman**

Esaldiko informazioa antolatzeko, jarri lehenengo garrantzitsuena, gehien interesatzen zaiguna, eta ondoren osagarriak, hainbesteko garrantzia ez dutenak.

Adibidea:

**HOBETZEKOA HOBETO**

Irailaren 15ean, arratsaldeko 08:00etan,  
etorriko dira teيلاتua konpontzera  
igeltseroak

**Teيلاتua konpontzera etorriko dira  
igeltseroak, irailaren 15ean,  
08:00etan**

**3 Erabili hitz ezagunak eta ulerterrazak (ikus hiztegia)**

Hiztegia ez dadila oztupo izan. Beti buruan izan agendaren irakurlea, eta erabili hitz ezagunenak, gertukoena. Hitzen bat zailegia egingo zaiola irudituz gero, erabili sinonimoak edo zuzenean gaztelaniazkoa, egokituta. Garrantzitsuena da lehen irakurraldian ulertzea, hiztegiara jo beharrik ez izatea.

**HOBETZEKOA HOBETO**

Norbaiti bolaluma lehertu zaio 1.2.  
ikasgelan eta zorua erabat satsu dago.  
Kartela itsatsi dut horman, ikasleak  
arretaz ibiltzeko, lohitu gabe.  
Garbitzaileari esan diot pasatzeko.

**Norbaiti boligrafoa lehertu zaio 1.2.  
ikasgelan eta lurra txerri eginda dago.  
Kartela pegatu dut paretan, ikasleak  
kontuz ibiltzeko, zikindu gabe.  
Garbitzaileari esan diot pasatzeko.**

**4 Alferrikako informaziorik ez, eta erabili esaldi laburrak**

Zenbat eta laburrago eta zehatzago, hobeto.

**HOBETZEKOA HOBETO**

Eskolara sartzeko ate nagusiko sarrailak  
arazoak ematen ditu ixteko eta irekitzeko  
eta telefonoz deitu diot horretaz arduratzen  
den arotzari eta esan dit lanpetuta dabilela  
eta ahal duenean etorriko dela (bihar  
goizerako seguru!).

**Ate nagusiko sarraila ez dago  
ondo. Arotzari deitu diot. Bihar  
goizerako etorriko omen da.**

**5 Zaindu denbora (iragana, oraina, etorkizuna)**

Agendan garrantzitsua da zehaztasuna, zer-noiz argi eta garbi adieraztea, eta bereziki zaindu beharko dugu denbora, gaizkiulerturik gerta ez dadin.

### - Aspektua: egunerokoa?

Gaztelaniaren eraginez, “viene, trae, lleva...” eta horrelakoak euskaraz jartzeko, gerta liteke ohiturazkora jotzea (“etortzen da”, “ekartzen du”, “eramaten du”...), eta ez da zuzena.

HOBETZEKOA	HOBETO
09:05. Argiketariak etortzen dira	<b>09:05. Argiketariak etorri dira</b>
Pintoreak etortzen dira eta lanean egoten dira 14:00ak arte. Esaten dute bihar etorriko direla lanak bukatzera	<b>Pintoreak etorri dira eta lanean aritu dira 14:00ak arte. Esan dute bihar etorriko direla lanak bukatzera</b>

### - Data

Agendan sarritan jartzen dira datak, hilabeteak, asteko egunak eta beste hainbat denbora-nozio (etzi, herenegun, iaz...).

- Euskaltzaindiak badauka dataren inguruko araua eta AZPidazkin ere hainbat azalpen daude. Agendari dagokionez, data adierazteko orduan, gehienetan nahikoa izango dugu era laburtua erabiltzea: urtea, hilabetea eta eguna, tartean marratxoa edo barra etzana sartuta:

*2007-11-09      2007/11/09      2007-XI-09      2007/XI/09*

- Komeni da urtea 4 digiturekin idaztea, bestela nahasgarria izan daiteke-eta:

HOBETZEKOA	HOBETO
04-04-02	<b>2004-04-02</b>
02-04-04	<b>2002-04-04</b>

- Urtea** tartean edo amaieran **punturik gabe** idazten da. Amaieran puntua jarriko dugu urtearen atzetik “urte” hitza erabiliz gero

HOBETZEKOA	HOBETO
2.007ko ekainaren 7an	<b>2007ko ekainaren 7an</b>
2007.eko ekainaren 7an	<b>2007ko ekainaren 7an</b>
Lan horiek 2007 urtean egin ziren	<b>Lan horiek 2007. urtean egin ziren</b>

- Hilabeteak eta asteko egunak:** testu barruan doazenean, minuskulaz idazten dira:

**HOBETZEKOA HOBETO**

Teilatua konpontzera Uztailaren 12an etorri ziren Bihar, Asteartea, ekarriko du	<b>Teilatu konpontzera uztailaren 12an etorri ziren Bihar, asteartea, ekarriko du</b>
--	---

Halaber, ez hilabeteek, ez asteko egunek, amaieran ez daukate berezko –a-rik eta horrek eragina dauka, batez ere, deklinabide-atzizkia eranstea:

**HOBETZEKOA HOBETO**

Maiatzan ez ziren etorri, eta ekainako orrietan ez dut ikusten Atzo (astelehena) ekarri zuen ordenagailu eramangarria	<b>Maiatzean ez ziren etorri, eta ekaineko orrietan ez dut ikusten Atzo (astelehena) ekarri zuen ordenagailu eramangarria</b>
--	---

- **Arreta berezia jarri zenbakia eta deklinabide-atzizkiaren loturan.** Elkartuta idazten da, marratxorik gabe.

**HOBETZEKOA HOBETO**

2004-ko Irailaren 5-ean hasiko naiz lanean	<b>2004ko Irailaren 5ean hasiko naiz lanean</b>
---	---

Kontsonantez bukatzen denean, deklinabide atzizkia eranstea, batzuetan “e” erantsi behar zaio.

**HOBETZEKOA HOBETO**

Ekainaren 10ko ekitaldian Irailaren 5an hasiko naiz lanean Martxoaren 31an etorri ziren arotzak	<b>Ekainaren 10eko ekitaldian Irailaren 5ean hasiko naiz lanean Martxoaren 31n etorri ziren arotzak</b>
---	---

- **Irailak 19 eta irailaren 19a**

*Irailak 19, arazoak 7, abenduak 13 eta antzekoak ere erabiltzea badago, baina baldintza batekin: kasu-marka agerikorik ez behar izatea. Adibidez: Gaur, irailak 17, eskola itxita egongo da.*

**HOBETZEKOA HOBETO**

Ekainak 25ean ez zuten ezer ekarri Irailak 3an itxita egongo da ikastegia Martxoak 5etik ez dugu berririk	<b>Ekainaren 25ean ez zuten ekarri Irailaren 3an itxita egongo da ikastegia Martxoaren 5etik ez dugu berririk</b>
---	---



**- Ordua**

Euskaltzaindiak badauka orduaren inguruko araua (35.a) eta **AZPidazkin** ere hainbat azalpen daude. Agendari dagokionez, ordua adierazteko, gehienetan nahikoa izango dugu era laburtua erabiltzea, hau da, ordua zenbakiz idaztea: ordua (bi digiturekin): minutuak (bi digiturekin).

11:15                      08:55                      16:35                      13:30

Ordua esaldiaren hasieran jarri; halaber, parentesien artean jartzea badago, amaieran:

11:00: *Igeltseroa etorri da*    *Igeltseroa etorri da (11:00)*

Atzetik deklinabide-marka erantsi behar izanez gero, orduak puntuan direnean plurala erantsi, eta minutuak ageri direnean singular-marka:

HOBETZEKOA	HOBETO
11:00tan etorri da igeltseroa Ikastegia itxita egongo da 13:30etatik 15:15etara	<b>11:00etan etorri da igeltseroa</b> <b>Ikastegia itxita egongo da</b> <b>13:30etik 15:15era</b>

